Aretxabaletako
Udala

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, ARETXABALETAKO HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMA (HPP) ETA KOMUNIKAZIO-PLANA GAUZATZEKO BEHARREZKOAK DIREN LANAK KONTRATATZEKO

HAPOa idazteko irizpideak eta helburuak onartu arte

2021/03/02

Arratabe jauregia | Otalora kalea 1 | 20550 Aretxabaleta
Tel.: 943 71 18 62 | Faxa: 943 71 18 64
udala@aretxabaleta.eus | www.aretxabaleta.eus

# INDICE

**1. KONTRATUAREN XEDEA ..... 3**

**2. ESKATUTAKO ZERBITZU MOTA ..... 3**

**3. ESKATUTAKO LANAREN ESKEMA ETA EDUKIA ..... 4**

A. HAPOaren formulazioa ..... 5

B. Diagnostikoa ..... 7

D. Alternatiba, irizpide eta helburu posibleak definitzea ..... 8

E. HAPOaren eta Hasierako Dokumentu Estrategikoaren aurrerapena idaztea ..... 10

F. Aurrerapena eta Ingurumen Dokumentu estrategikoa jendaurrean jartzea ..... 10

G. Irizpideak eta helburuak hartzea ..... 11

**4. EXEKUZIO ETA LIKIDAZIO EKONOMIKORAKO EPE PARTZIALAK ..... 13**

**5. LANAREN ZUZENDARITZA ..... 13**

**6. TALDE ESLEIPENDUNAREN ANTOLAMENDUA ..... 13**

**7. LANA AURKEZTEA ..... 14**

**8. ESKUBIDEAK LAGATZEA ETA ERABILTZEA ..... 15**

**I.ERANSKINA HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMA: ..... 15**

## 1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea Aretxabaletako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari dagokion Herritarren Partaidetzarako Programaren (aurrerantzean HPP) 0-6 faseak gauzatzeko beharrezkoak diren lanak esleitzea da. Programa agiri honi erantsi zaio. Hau da, Aretxabaletako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazteko balio duten irizpideak eta helburuak onartu arte. Horrela, HAPOa idatzi aurreko jarduketa guztiak hartzen dira kontuan, eta horiek oso denbora gutxian (urte eta erdi inguru) biltzen dute herritarren parte-hartze gehiena.

## 2. ESKATUTAKO ZERBITZU MOTA

Aretxabaletako Udalak Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (aurrerantzean HAPO) idazteari ekin dio. Idatziko duen HAPOko bulegoa, Arkitektura eta Arkitektura Teknikoan trebatuta dauden, Udaleko bertako langileek osatzen dute. HAPO bat idazten duen talde batean hain beharrezkoa den diziplinartekotasuna osatzeko, ingurumen-ezagutzei, ezagutza juridikoei eta herritarren parte-hartzeari buruzko laguntza-zerbitzuak kontratatuko dira, besteak beste.

Lizitazio honen bidez, HAPOko erredakzio-taldean dauden gainerako diziplinak osatuko dituen diziplina anitzeko talde bat kontratatu nahi da, herritarren partaidetzako prozesuetan eta komunikazio-planetan ezagutzak dituena

HPParen eta Komunikazio Planaren abiaraztea eta gauzatzea diseinatzea, erabili beharreko dokumentazio guztia diseinatzea herritarrentzat ulergarria izan dadin, HPPan eta komunikazio-planean aurreikusitako jarduerak dinamizatzea, eta lortutako emaitzak sintetizatzea eta baloratzea izango da haren zeregin nagusia, HAPOko Bulegoarekin batera. Horretarako, HAPOko bulegoko gainerako taldekideen laguntza eta ezagutza izango du beti.

Aldi berean, koordinazio eraginkorra egon beharko da D2030 ekimenarekin.

Azkenik, herritarren parte-hartze parekidea bermatzeko, programa diseinatzen eta gauzatzen, emakumeen parte-hartzea sustatu beharko du, eta, horrez gain, Aretxabaletako Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana aplikatu beharko du.

## 3. ESKATUTAKO LANAREN ESKEMA ETA EDUKIA

Atal honetan zehaztuko da nola gauzatuko diren Herritarren Partaidetzarako Programaren faseak (aurrerantzean, HPP), Aretxabaletako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrarenak (aurrerantzean, HAPO), HAPOa idatzi eta izapidetzeko aldien barruan, eta legez eskatzen diren gainerako ingurumen- eta sektore-dokumentuak. Herritarrek parte hartzeko programa agiri honen eranskin gisa erantsi da. Agiri honetan, protokolizatzeko beste jarduketa batzuk ere sartu dira (bilerak, aktak, dokumentuak, etab.), eta 5. eta 6. faseen ordena aldatu da.

Jarduera horiek gutxienekotzat hartu behar dira, eta HPParen 5. atalean jasotako partaidetza-tresnen (ez-presentzialak, presentzialak eta diskrezionalak) talde esleipendunak fase bakoitzean HPParen 3. puntuan ezarritako helburuak bete ahal izateko egiten dituen proposamenekin osatuko dira. Talde esleipendunak bere metodologia askatasun nahikoarekin sartu ahal izatearen helburuarekin egin da, talde esleipendunak proposatutako metodologia esleipen-prozesuan baloratuko delarik.

Osasuna babesteko aurreikusitako jarduerak garatu ezin diren egoera hipotetikoan, talde esleipendunak alternatibak planteatu beharko ditu PPC etenik gabe garatzeko eta planteatutako helburuak lortzeko.

HAPOaren aldiak eta HAPOaren faseak honela koordinatzen dira:

| HAPOaren aldiak | HPParen faseak |
|---|---|
| A. HAPOaren formulazioa | • 0 fasea: Plangintzako Aholku Batzordea eratzea<br>• Lehen bilera, 0 eta 1 faseak<br>• Aretxabaletan egindako parte-hartze prozesuen laburpen-dokumentua<br>• Web orria – Blog espezifikoa edo espazio digital espezifikoa abian jartzea, udaleko app-a eta irudi korporatiboa erabiltzea (leloa, logotipoa, aurkezpen-formatuak, etab.)<br>• Aurretiazko kontsulta publikoa egitea<br>• 1. fasea: gizarte-egituraren azterketa.<br>• Plangintzako Aholku Batzordearen Saioa<br>• 0 eta 1 faseen amaiera |
| B. Diagnostikoa | • Lehen bilera 2. eta 3. Faseetan<br>• Diagnostiko parte-hartzailearen diseinua eta komunikazioa.<br>• 2. fasea: diagnostiko teknikoaren aurrekoa.<br>• 3. fasea: diagnostiko parte-hartzailea<br>• Diagnostiko parte-hartzailearen laburpen-dokumentua<br>• HPParen 2. eta 3. faseen azterketa-txostena<br>• Plangintzako Aholku Batzordearen bilkura.<br>• 2. eta 3. faseen amaiera |
| D. Alternatiba, irizpide eta helburu nagusiak | • Lehen bilera, 4. Fasea<br>• "4. fasearen" hasieraren diseinua eta komunikazioa. |

| HAPOaren aldiak | HPParen faseak |
|---|---|
| definitzea | • 4. fasea: proposamen eta alternatiba parte-hartzaileak definitzea.<br>• 4. fasearen laburpen-dokumentua.<br>• HPParen 4. fasearen azterketa-txostena<br>• Plangintzako Aholku Batzordearen bilkura<br>• 4. fasearen amaiera |
| E. HAPOaren eta HEDaren aurrerapena idaztea | • Lehen bilera, 6. Fasea<br>• 6. fasearen diseinua eta komunikazioa. |
| F. Aurrerapena eta ingurumen-dokumentu estrategikoa jendaurrean jartzea | • 6. fasea: aurrerapena eta plangintzaren helburuak eta irizpideak. Iradokizunak.<br>• Aurrerapenaren eta HEDaren erakusketa publikoaren laburpen-dokumentua<br>• HPParen 6. fasearen azterketa-txostena<br>• Plangintzako Aholku Batzordearen bilkura.<br>• 6. fasearen amaiera. |
| G. Irizpideak eta helburuak hartzea | • Lehen bilera, 5. Fasea<br>• Iradokizunei eta alternatibei emandako erantzun tekniko-juridikoak berrikustea<br>• HPParen 5. fasearen diseinua eta komunikazioa<br>• 5. fasea: helburuak eta herritarren irizpideak<br>• 5. fasearen laburpen-dokumentua.<br>• Plangintzako Aholku Batzordearen bilkura<br>• Irizpideak eta helburuak onartzeko saioan parte hartzea<br>• 5. fasearen amaiera. |

Jarraian, aldi bakoitzean egin beharreko zeregin guztiak laburbilduko dira:

## A. HAPOaren formulazioa

Aldi hori partzialki gauzatuta dago. Lehenik, Plangintzako Aholku Batzordearen Erregelamendua onartu zen (HPParen 0 fasea), eta, gero, Udalak HAPO idaztea erabaki zuen, egingo den Herritarren Partaidetzarako Programa onartzearekin batera. Azkenik, arkitekto bat kontratatu da HAPOa idazteko Udalaren HAPOko Bulegoan.

Gainera, aldi horretan laguntza teknikoko zerbitzua kontratatuko da HPPa garatzeko, HAPOaren Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa izapidetzeko beharrezko lanetarako eta HAPO idazteko laguntza juridikorako.
HPPa izapidetzeko beharrezkoak diren lanetarako laguntza-zerbitzuaren kontratua esleitu ondoren, talde esleipendunak honako prestaketa-jarduera hauek egin beharko ditu:

- Lehen bilera HAPOko bulegoarekin, kontratua sinatu ondoren:

Bertan, gutxienez, honako gai hauek landuko dira:

- Talde esleipendunaren eta HAPOko bulegoaren arteko barne-komunikazioko sistema. Erreferentziako pertsonak eta barne-bileren maiztasuna adostuko dira.

- Talde esleipendunak barne-bileren "akta-mota" formatu bat iradokiko du. Formatu hori aztertu eta onartuko da, eta, horrez gain, protokolo bat ezarriko da talde esleipendunak bidaltzeko eta HAPOko bulegoak baliozkotzeko.

- Plegu honetako 0 eta 1 faseetako lan-kronograma aztertuko da. Erabakitako oharrak jasoko dira, bileraren aktari erantsiko zaio.

- Hurrengo bilerarako egutegia adostea. Agiri honetan ezarritako zereginak egiten ez diren aldietan izan ezik, astean behin aurrez aurreko bilerak egingo dira udaletxean.

- Aretxabaletan egindako dokumentuen laburpen-dokumentua:

HAPOkon bulegoak udalerrian lehenago garatutako partaidetza-prozesuei buruz emandako dokumentazioarekin, talde esleipendunak HAPOn eragina izan dezaketen alderdien laburpen-dokumentu bat egingo du. Baldintza-agiri honetako "lana aurkeztea" ataleko baldintzak bete beharko ditu.

Bestalde, barne-txosten bat egingo da horietan erabilitako metodologiari buruz hausnartzeko, PKPn aurreikusitakoak hobetzeko

Lehenengo bileratik hilabete igaro baino lehen, HAPOren bulegoan entregatu beharko dira, eta hark baliozkotu beharko ditu

- Blog webgune espezifikoa edo espazio digital espezifikoa martxan jartzea (bannerra udal-orrian), Udal APPa erabiltzea, irudi korporatiboa (leloa, logotipoa, aurkezpen-formatuak, etab.):

Lehenengo bileratik hilabete igaro baino lehen, HAPOren bulegoan entregatu beharko dira, eta hark baliozkotu beharko ditu

- Aurretiazko kontsulta publikoa egitea

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluak ezartzen duenez, proiektua edo aurreproiektua egin aurretik, lege edo erregelamendu ororen idazketan (HAPOa horietako bat da) kontsulta publiko bat bideratuko da, administrazio eskudunaren web-atariaren bidez.

Talde esleipendunak, HAPOko bulegoaren laguntza teknikoarekin eta ikuskapenarekin, administrazio-izapide hori integratuta geratzea eta HPParen helburuak betetzea lortu beharko du. Web-blog espezifikoa edo espazio digital espezifikoa martxan jarri eta hilabete baino lehen egin behar da.

Horren amaieran, laburpen-dokumentu bat egingo da, espazio digitalean sartzeko, bai eta barne-

txosten bat ere, non prozesua aztertuko den eta gomendio batzuk emango diren etorkizunean udalerrian egingo diren aurretiazko kontsulta publikoetarako, etorkizuneko erregelamenduak idatzi aurretik.

- Aretxabaletako gizarte-egituraren azterketa (HPParen 1. fasea):

  Jarduketa laburra izan behar du, eta Aurretiazko Kontsulta Publikoaren Sintesi Dokumentua entregatzen den egunetik aurrera ez da luzatuko; talde esleipendunak udalerriaren errealitate soziala ezagutzea du helburu. Horren irismena talde esleipendunak lizitazio-proposamenean proposatzen duena izango da.

  Hori amaitzean, talde esleipendunak laburpen-txosten bat emango dio HAPOko bulegoari, HPPa gauzatzeari begira ateratako ondorioekin.

- Plangintzako Aholku Batzordearen bilkura:

  Saioa baino astebete lehenago, HAPOko bulegoak baliozkotu dituen laburpen-dokumentua eta azterketa-txostena aurkeztuko zaizkio.

  Talde esleipenduna arduratuko da PABren bilkura dinamizatzeaz, eta saioaren akta egin beharko du.

  HPParen 0 eta 1 faseak bilkura honekin amaituko dira, eta hurrengo egunean, talde esleipendunak likidazio ekonomikoa eskatu ahal izango du.

### B. Diagnostikoa

Aldi horretan, HAPOko bulegoak hainbat alderdiri buruzko azterketa tekniko-juridiko batzuk egingo ditu, udalerriaren eta indarrean dauden Hiri Antolaketako Arauen ingurumen-, hirigintza- eta sozioekonomia-errealitatearen ahalik eta irudirik errealena izateko. Azterketa hori oinarritzat hartuko da HAPO berriak etorkizuneko Aretxabaleta diseinatzeko lortu behar dituen helburuak zehazteko. Diagnostiko hori, errealitatera ahalik eta gehien hurbiltzeko, Aretxabaletako biztanleekin batera egin behar da (HPPren 3. fasea).

- Lehen bilera HAPOko bulegoarekin:

  Bertan, gutxienez, honako gai hauek landuko dira:

  - Baldintza-agiri honen 2. eta 3. faseetako lan-kronograma aztertuko da. Erabakitako oharrak sartuko dira, eta bileraren aktari erantsiko zaio.
  - Fase honetarako aurreikusitako jarduerak egiteko epeak eta jarraibideak ezarriko dira.
  - HAPOko bulegoak egindako azterlan tekniko-juridikoen laburpena emango dio talde esleipendunari.
  - Hurrengo bilerarako data adostea. HPPren 2. eta 3. faseak amaitu arte, aurrez aurreko bilerak egingo dira astero udaletxean.

- "Diagnostiko parte-hartzailearen" hasieraren diseinua eta komunikazioa:

  Talde esleipendunak hilabete izango du horretarako, eta HAPOko bulegoaren laguntza teknikoa izango du. HAPOko bulegoak aldez aurretik baliozkotuko ditu bai diseinua bai komunikazio-plana

- "Diagnostiko parte-hartzailea" abian jartzea

  Gehienez ere beste hilabete batean egingo da. Horretarako, HAPOko bulegoaren laguntza teknikoa izango du, eta aldez aurretik hark baliozkotu beharko ditu jarduketa guztiak.

  Partaidetza-diagnostikoa garatzeko, HPParen 6. puntuan ezarritako gutxieneko tailerrez gain, HPParen 5. atalean jasotako partaidetza-tresna guztiak erabili beharko dira (ez-presentzialak, presentzialak eta diskrezionalak) HPParen 3. puntuan ezarritako helburuak bete ahal izateko.

  Partaidetza-diagnostikoan egin beharreko jarduerak modu azkar eta atseginean hasiko dira beti plangintza-gaiei buruzko prestakuntza txiki eta aurkezpen batekin (HPParen 2. fasea).

- Diagnostiko parte-hartzailearen laburpen-dokumentua:

  Diagnostiko parte-hartzailea amaitu ondoren, talde esleipendunak 2 asteko epea izango du laburpen-dokumentu bat aurkezteko. Dokumentu horrek, plataforma digitalean sartzeko balio izateaz gain, HAPOren bulegoak aldez aurretik egindako diagnostiko tekniko-juridikoa aldatu eta/edo osatu ahal izateko balioko du.

- HPParen 2. eta 3. faseen azterketa-txostena:

  Talde esleipendunak barne-dokumentu bat egin beharko du, prozesua aztertzeko eta HPParen hurrengo faseetarako gomendioak emateko.

- Plangintzako Aholku Batzordearen bilkura:

  Saioa baino astebete lehenago, HAPOko bulegoak baliozkotu dituen 2. eta 3. faseen laburpen-dokumentua eta azterketa-txostena aurkeztuko zaizkio.

  Talde esleipenduna arduratuko da PABren bilkura dinamizatzeaz, eta saioaren akta egin beharko du.

  HPParen 2. eta 3. faseak bilkura honekin amaituko dira, eta hurrengo egunean, talde esleipendunak likidazio ekonomikoa eskatu ahal izango du.

### D. Alternatiba, irizpide eta helburu posibleak definitzea

Aretxabaletaren diagnostikoa egin eta haren errealitatea ezagutu ondoren, fase honetan etorkizuneko Aretxabaleta diseinatzeko HAPO berriak har ditzakeen alternatibak, irizpideak eta helburuak definitu beharko dira.

HAPOren bulegoak aldez aurretik aztertuko ditu HAPOn jaso behar diren alderdi guztiak, egungo legeria eta udalez gaindiko antolamendu-planak betetzeko. Horrela, mugatuta geratuko da aukera, irizpide eta

helburu posibleak defini daitezkeen guztia.

Ondoren, bulego teknikoa hainbat aukera, irizpide eta helburu diseinatzen hasiko da, eta horiek jendaurrean jarriko den aurrerapen-dokumentuan jasoko dira.

Hala ere, aurrerapen horrek, besteak beste, alternatiba, irizpide eta helburu onenak jaso ditzan, beharrezkoa da herritarrek aldez aurretik ekarpen horiek egitea.

Beraz, fase honetan HPParen 4. fasea egingo da, proposamen eta alternatiba parte-hartzaileak defini daitezen. Jarduketa hauek egingo dira:

- Lehen bilera HAPOko bulegoarekin:

  Bertan, gutxienez, honako gai hauek landuko dira:

  - Baldintza-agiri honen 3. faseko lan-kronograma aztertuko da. Erabakitako oharrak sartuko dira, eta bileraren aktari erantsiko zaio.
  - Fase honetarako aurreikusitako jarduerak egiteko epeak eta jarraibideak ezarriko dira.
  - HAPOko bulegoak aldez aurretik egindako azterketa erraztuko du.
  - Hurrengo bilerarako data adostea. HPParen 4. fasea amaitu arte, aurrez aurreko bilerak egingo dira astero udaletxean

- "Proposamen eta alternatiba parte-hartzaileen definizioa" ren hasieraren diseinua eta komunikazioa:

  Talde esleipendunak hilabete izango du horretarako, eta HAPOko bulegoaren laguntza teknikoa izango du. HAPOko bulegoak aldez aurretik baliozkotuko ditu bai diseinua bai komunikazio-plana.

- "Proposamen eta alternatiba parte-hartzaileen definizioa" martxan jartzea

  HPParen 6. puntuan ezarritako gutxieneko tailerrez gain, HPParen 5. atalean jasotako partaidetza-tresna guztiak erabili beharko dira (ez-presentzialak, presentzialak eta diskrezionalak) HPParen 3. puntuan ezarritako helburuak bete ahal izateko. Horretarako, HAPOko bulegoaren laguntza teknikoa izango du. Kontratua gauzatzeko epea ez da hilabetekoa baino luzeagoa izango.

- "Proposamen eta alternatiba parte-hartzaileen definizioa" laburpen-dokumentua:

  Diagnostiko parte-hartzailea amaitu ondoren, talde esleipendunak 2 asteko epea izango du laburpen-dokumentu bat aurkezteko. Dokumentu horrek, plataforma digitalean sartzeko balio izateaz gain, HAPOren bulegoak fase osoan landu dituen aukerak, irizpideak eta helburuak aldatu eta/edo zabaldu ahal izateko balioko du.

- HPParen 4. fasearen azterketa-txostena:

  Talde esleipendunak barne-dokumentu bat egin beharko du, prozesua aztertzeko eta PKPren

hurrengo faseetarako gomendioak emateko.

- Plangintzako Aholku Batzordearen bilkura:

  Saioa baino astebete lehenago, HAPOko bulegoak baliozkotu dituen laburpen-dokumentua eta azterketa-txostena aurkeztuko zaizkio.

  Talde esleipenduna arduratuko da PABren bilkura dinamizatzeaz, eta saioaren akta egin beharko du.

  HPParen 4. fasea bilkura honekin amaituko da, eta hurrengo egunean, talde esleipendunak likidazio ekonomikoa eskatu ahal izango du.

## E. HAPOaren eta Hasierako Dokumentu Estrategikoaren aurrerapena idaztea

Etorkizuneko HAPOak izan ditzakeen aukera, irizpide eta helburu guztien diagnostikoa eta definizioa eginda, HAPOko bulegoak HAPOaren Aurrerapenaren dokumentuan idatziko du. Dokumentu irekia izango da, eta jendaurrean ikusgai jartzean etorkizunean lortu nahi den Aretxabaleta definitzeko aukera guztiak jasoko ditu.

Hirigintza-dokumentu orok ingurumen-ebaluazio estrategiko baten mende egon behar du. Ebaluazio horren barruan, legez ezartzen da, Aurrerapenaren dokumentua idaztearekin batera, haren "hasierako Dokumentu Estrategikoa" idatzi behar dela, Eusko Jaurlaritzako ingurumen-organoari ingurumen-ebaluazio estrategikoa hasteko eta "irismen-dokumentua" emateko eskatzeko. Irismen-dokumentuan, ingurumen-organoak zehaztuko du zer alderdik hartu beharko dituen kontuan HAPO eta haren ingurumen-azterketa estrategikoa.

Aurrerapen-dokumentua jendaurrean jartzea oso garrantzitsua da, herritarren iritzia jaso behar baita bertan, bere ustez egokiena den udalerri-ereduari buruz.

Aurrerapena eta haren HEDa idazten amaitzen ari den aldian, talde esleipendunak HPParen 6. fasea diseinatzen hasi beharko du, eta HAPOko bulegoak baliozkotu beharko du aldez aurretik. Aurrerapena jendaurrean jarriko duen osoko bilkura baino hilabete lehenago, lehenengo barne-bilera egingo da, eta, osoko bilkuraren erabakia hartzen denerako, baliozkotuta egon beharko dute komunikazio-planak eta 6. fasearen diseinuak.

## F. Aurrerapena eta Ingurumen Dokumentu estrategikoa jendaurrean jartzea

Agiriak idatzi ondoren, gutxienez bi hilabetez jendaurrean jartzea erabakiko da osoko bilkuran. Jendaurrean jartzean, Aurrerapenaren dokumentuak planteatzen dituen aukera, irizpide eta helburu guztiak kontrastatu nahi dira, herritarrek zergatik aukeratzen duten jakiteko. Horretarako, HPParen 6.

fasea garatuko da, ondorengo jarduketa hauekin:

- "PKPren 6. fasea" markan jartzea

  HPParen 5. atalean jasotako partaidetza-tresna guztiak erabili beharko dira (ez presentzialak, presentzialak eta diskrezionalak) HPParen 3. puntuan ezarritako helburuak bete ahal izateko. Horretarako, HAPOko bulegoaren laguntza teknikoa izango du. Lanak egiteko epea jendaurrean jartzea izango da.

- "Aurrerapenaren eta Direktibaren azalpen publikoa:

  Jendaurrean jarri ondoren, talde esleipendunak 2 asteko epea izango du HPParen 6. fasearen laburpen-dokumentu bat aurkezteko. Dokumentu horrek plataforma digitalean sartzeko balioko du, bai eta bulego teknikoak HAPO idazteko irizpideak eta helburuak proposatzeko txostena idazteko ere.

- HPParen 6. fasearen azterketa-txostena:

  Talde esleipendunak barne-dokumentu bat egin beharko du, prozesua aztertzeko eta HPParen hurrengo faseetarako gomendioak emateko.

- • Plangintzako Aholku Batzordearen bilkura:

  Saioa baino astebete lehenago, HAPOko bulegoak baliozkotu dituen laburpen-dokumentua eta azterketa-txostena aurkeztuko zaizkio.

  Talde esleipenduna arduratuko da PABren bilkura dinamizatzeaz, eta saioaren akta egin beharko du.

  HPParen 6. fasea saio honekin amaituko da, eta hurrengo egunean talde esleipendunak likidazio ekonomikoa eskatu ahal izango du.

## G. Irizpideak eta helburuak hartzea

Aldi horretan, HAPOko bulegoak Aurrerapena jendaurrean jartzean aurkeztutako iradokizun eta alternatiba guztiak eta jasotako txosten guztiak aztertuko ditu, teknikoki eta juridikoki. Gainera, HAPOa birlotzeko irizpide eta helburuen proposamena idatziko du.

Udal-korporazioak, onartu aurretik, herritarrek irizpide eta helburuen proposamen horri buruz duten iritzia jakin dezan, HPParen 5. fasea egingo da.

Talde esleipendunak honako jarduketa hauek egingo ditu:

- Lehen bilera HAPOko bulegoarekin:

  Bertan, gutxienez, honako gai hauek landuko dira:

- Baldintza-agiri honen 5. faseko lan-kronograma aztertuko da. Erabakitako oharrak sartuko dira, eta bileraren aktari erantsiko zaio.
- Fase honetarako aurreikusitako jarduerak egiteko epeak eta jarraibideak ezarriko dira.
- HAPOko bulegoak herritarren iradokizunei eta alternatibei erantzun tekniko-juridikoa emango die, bai eta HAPO idazteko irizpideak eta helburuak proposatu ere.
- Hurrengo bilerarako data adostea. HPParen 5. fasea amaitu arte, aurrez aurreko bilerak egingo dira astero udaletxean.

- Iradokizunei eta alternatibei emandako erantzun tekniko-juridikoak berrikustea:

  Talde esleipendunak erantzunak aztertuko ditu eta zuzenketak egingo dizkie, argiagoak izan daitezen herritarrei begira. 2 asteko epea izango du, HAPOko bulegoak ematen dizkionetik.

- "PKPren 5. fasearen" hasieraren diseinua eta komunikazioa:

  Talde esleipendunak 2 aste izango ditu horretarako eta HAPOko bulegoaren laguntza teknikoa izango du. HAPOko bulegoak aldez aurretik baliozkotuko ditu bai diseinua bai komunikazio-plana.

- "HPParen 5. fasea" martxan jartzea.

  Aurreko faseetan lortutako esperientziari esker, dokumentua modurik errazenean kontrastatu ahal izango da, Aretxabaletako biztanleriaren ikuspegi ahalik eta zabalena lortzeko. Gehienez ere 2 asteko epea aurreikusten da.

- Laburpen-dokumentua:

  Talde esleipendunak aste bateko epea izango du fase honen laburpen-dokumentu bat aurkezteko.

- Plangintzako Aholku Batzordea:

  Bilera baino astebete lehenago, laburpen-dokumentua aurkeztuko zaio, eta haren txostena, laburpen-dokumentuarekin batera, HAPOko bulegoak irizpideak eta helburuak proposatzeko modua aldatuko du, udalbatzak onartu aurretik.

  Talde esleipenduna arduratuko da PABren bilkura dinamizatzeaz, eta saioaren akta egin beharko du.

- Irizpideak eta helburuak onartzeko saioan parte hartzea:

  HPParen 5. eta 6. faseen laburpena azalduko zaio udal-korporazioari. HPParen 5. fasea saio honekin amaituko da, eta hurrengo egunean talde esleipendunak likidazio ekonomikoa eskatu ahal izango du.

## 4. EXEKUZIO ETA LIKIDAZIO EKONOMIKORAKO EPE PARTZIALAK

Hasierako akta sinatzen denetik aurrera egingo da lana. Oporraldietan (uztaila, abuztua, Gabonak eta Aste Santua) eta hauteskunde-egunen aurreko bi hilabeteetan, ezin izango da pertsonen benetako presentzia eskatzen duen jarduerarik egin (hitzaldi informatiboak, lantaldeak, erakusketak, etab.). Lizitatutako lanak 6 alditan egingo dira, HPParen 0-6 faseei dagozkienak. Fase bakoitza gauzatzeko epeak baldintza-agiri honetako "eskatutako lan-eskema eta -edukia" atalean ezarritakoak izango dira.

Fase bakoitzaren likidazio ekonomikoa agiri honetako "eskatutako lan-eskema eta -edukia" atalean ezarritako fasearen amaierako mugarrian egingo da.

## 5. LANAREN ZUZENDARITZA

Lehiaketa honen eta esleipendunarekin sinatu beharreko kontratuaren xede diren lanak Aretxabaletako Udaleko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Bulegoko Zuzendaritzak edo hark eskuordetzen duen pertsonak gainbegiratuko ditu. Zuzendaritza- eta gainbegiratze-lan horien barruan sartzen dira, besteak beste:

- Dagozkion lan-irizpideak zehaztea, agiri honetan eta esleipendunarekin egindako kontratuan ezarritakoen osagarri.
- Lanak egiteko prozesua, lanen kalitatea eta proposatutako helburuak ezarritako epeetan zenbateraino bete diren fiskalizatzea, eta, hala badagokio, lanak behar bezala gauzatzeko behar diren erabakiak hartzea.
- Hala badagokio, entrega partzialak kontrolatzea, fiskalizatzea eta jasotzea, eta, entregatu ondoren, lan guztiak, eta, hala badagokio, zuzendu beharreko akatsak identifikatzea.

Zuzendaritzak kontratuaren xedearekin zerikusia duen informazio guztia emango dio esleipendunari

## 6. TALDE ESLEIPENDUNAREN ANTOLAMENDUA

Talde esleipendunak erreferentziako pertsona bat izendatuko du, Aretxabaletako HAPOko Bulegoaren aurrean ordezkari izan dadin.

Pertsona horrek Aretxabaletako Udaleko lanegun osoan egon beharko du telefono bidez erabiltzeko moduan.

Besteak beste, zeregin hauek izango ditu:

- Lan-fase bakoitzaren hasierako bilerara joatea.
- HPPren faseek irauten duten bitartean, beharrezkotzat jotzen diren tarteko bileretara joatea.
- Plangintzako Aholku Batzordeak, Plangintzako Batzordeak, Tokiko Gobernu Batzarrak eta Udal Batzarrek eskatutako bilkuretara joatea.
- HPPa garatzeko egiten diren tailerrak eta mahaiak.

## 7. LANA AURKEZTEA

Fase bakoitzean behin-behinean entregatutako lanak zuzentzea edo ez zuzentzea zuzendaritza- eta koordinazio-arduradun horien txostenen bidez aztertuko da. Txostenen arabera berrikusi eta zuzendu ondoren, fase bakoitzeko behin betiko dokumentuak entregatuko dira.

Behin betiko dokumentuan, Udalak bere gain hartutako betebeharrak behar bezala ulertu eta aurkezteko beharrezkotzat jotzen dituen agiri guztiak jasoko dira, idatzizkoak, grafikoak eta bisualak

Fase bakoitzean egindako txostenak eta laburpen-dokumentuak paperean eta formatu digitalean entregatuko dira. Paperezko entregak paper birziklatuan, DIN-A4 formatuan edo formatu horren baliokidean editatuko dira, tamaina horretan koadernatuta. Formatu digitalak Aretxabaletako Udaleko sistema informatikoekin bateragarriak diren formatu editagarrietan zein PDF formatuan izango dira.

HPP eta komunikazio-plana egiteko sortutako gainerako dokumentazioa ere paperean eta formatu digitalean entregatu beharko da. Paperezko entregak ahal den guztietan paper birziklatuan editatuko dira, eta formatua librea izango da. Formatu digitalak formatu editagarrietan eta PDF formatuan entregatuko dira. Kasu horretan, formatu editagarriak, ahal den guztietan, Aretxabaletako Udalaren sistema informatikoekin bateragarriak diren formatuetan entregatuko dira.

Sortutako edozein txosten edo dokumenturen behin-behineko entregak paperezko kopia batekin eta kopia digital batekin egingo dira, euskarri fisiko batean, HAPOren bulegoak zuzendu ahal izateko.

Fase bakoitzaren amaieran, paperezko behin betiko entregak txostenen eta laburpen-dokumentuen paperezko 3 kopiaz eta 4 DVDz osatuko dira. Kopia horietan, azterketa osoa artxibatzeko, ziklo bakoitzean sortutako kontratuko dokumentu guztiak jasoko dira, bai eta ikusizko bilduma bat ere, non grafiko guztiak, argazki-erreportajeak, maneiatutako dokumentazio osagarria, testuak eta abar jasoko baitira. HPPa (tailerrak eta lanaldiak) egiteko beharrezkoak diren behin betiko kopiak talde esleipendunak

ordainduko ditu. Komunikazio-plana (informazio-kartelak), inkesta eta/edo erakusketak egiteko behar diren behin betiko kopiak Aretxabaletako Udalak egingo ditu.

Dokumentu, jarduera eta material guztiak komunikazio inklusibo batetik egin beharko dira, eta, horren bidez, Aretxabaletako pertsona eta komunitate guztiak eta haien errealitateak ikusarazi beharko dira. Gainera, denak, euskaraz zein gaztelaniaz egingo dira, euskarari lehentasuna emanez beti.

## 8. ESKUBIDEAK LAGATZEA ETA ERABILTZEA

Kontratu hau gauzatzean egin daitekeen dokumentazioa Aretxabaletako Udalarena izango da, eta hark kopiatu, argitaratu eta zabaldu ahal izango du, osorik edo zati batean, egoki den neurrian, eta enpresa esleipendunaren egiletza jasoko du.

Gainera, HPPa gauzatzeko eta komunikazio-planerako erabiltzen diren logotipo, lelo eta ereduzko formatu eta aurkezpen guztiak Aretxabaletako Udalak erabili ahal izango ditu, herritar guztiei irudi bateratua eman ahal izateko.

Horretarako, enpresa esleipendunak lan horren ustiapen-eskubide guztiak lagako dizkio Udalari, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz.

## I.ERANSKINA HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMA:

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko ekainaren 4a, osteguna — 104 — Jueves, a 4 de junio de 2020

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ARETXABALETAKO UDALA

*Iragarkia*

2020ko martxoaren 11n izandako osako bilkuran, besteak beste, onartu zen Aretxabaletako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra egiteko espedienteari hasiera ematea eta herritarrek parte hatzeko programa onartzea.

Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 3.2 artikuluak dioena betez, programa argitaratzen da.

*Aretxabaletako Hiri-Antolamenduko Plan Orokorrean herritarrek parte hartzeko programa.*

AURKIBIDEA

1. Sarrera.
2. Herritarren partehartzea.
3. Herritarren Partaidetzarako Planaren helburuak.
4. Plangintzako Aholku Batzordea.
5. Parte hartzeko tresnak eta faseak.
6. Herritarren Partaidetzarako Programaren eskema.
7. Dokumentuak.

*1. Sarrera.*

Herritarrak parte hartzeko Programaren helburua da udalerriko herritarrek Aretxabaletako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra ezagutu ahal izatea eta plan horretan parte hartu ahal izatea.

Tresna hori Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 108. artikuluan definitzen da, eta udalak Aretxabaletako pertsonen ekarpenak jaso, eztabaidatu eta informatu ahal izateko bitartekoak hautatzen ditu; izan ere, Aretxabaletako herritarren eskubidea eta betebeharra da etorkizun hurbilean udalerrian dauden eremuen eta inguruko udalerriekiko harremanen arteko bizikidetza-, hedapen- eta lotura-arauak definitzea.

Programak herritarren lotura eta inplikazioa sustatu nahi du udalerriarentzat interes berezia duen gai batean, hau da, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra egitean.

Plan hau egitean, udalerrian ingurumen-, paisaia-, kultura- eta hirigintza-gaietan jarduteko modua landu eta garatuko da.

HAPOa egiteko prozesuak udalerriaren egungo erronkak identifikatu nahi ditu: errealitate fisiko, ekonomiko eta sozial berria, lurraldearen mugak eta udalerriaren baliabideetan oinarritutako garapen iraunkorrerako planteamendu posiblea.

Hiri-garapenaren eredua egokitu beharko da, halaber, biztanleriaren eraldaketara, bai tamainari bai bizimoduari dagokienez, eta, jakina, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legera, haren edukia eta prozedura arautzen baititu, bai eta zuzenean eragiten dioten udalaz gaindiko planetara ere.

## AYUNTAMIENTO DE ARETXABALETA

*Anuncio*

En sesión de pleno de fecha 11 de mayo de 2020 se acordó, entre otros, incoar expediente para la formulación del Plan General de Ordenación Urbana de Aretxabaleta y aprobar el programa de participación ciudadana.

De acuerdo con lo dispuesto en el articulo 3.2 del Decreto 46/2020, de 24 de marzo, de regulación de los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística, se procede a la publicación de dicho programa.

*Programa de participación ciudadana del Plan General de Ordenación Urbana de Aretxabaleta.*

ÍNDICE

1. Introducción.
2. Participación ciudadana.
3. Objetivos del Plan de Participación Ciudadana.
4. Consejo Asesor de planeamiento.
5. Herramientas y Fases de participación.
6. Esquema del Programa de Participación Ciudadana.
7. Documentos.

*1. Introducción.*

El Programa de participación ciudadana tiene como fin garantizar que la ciudadanía del municipio pueda conocer y formar parte de la elaboración del Plan General de Ordenación Urbana de Aretxabaleta.

Esta herramienta definida en el artículo 108 de la Ley del Suelo y Urbanismo del País Vasco (LSUPV), selecciona los medios para que el Ayuntamiento pueda informar, debatir y recabar las posibles aportaciones por parte de las personas de Aretxabaleta, siendo éste su derecho y deber para definir en el futuro próximo las reglas de convivencia, expansión y vinculación entre los diferentes ámbitos existentes en el municipio y la relación con los municipios vecinos.

El programa pretende fomentar la vinculación e implicación de la ciudadanía en un tema de primordial interés para el municipio como es la elaboración del Plan General de Ordenación Urbana.

La realización de este Plan va a elaborar y desarrollar la manera de actuar en el municipio, en temas medio ambientales, paisajísticos, culturales y urbanísticos.

El proceso de elaboración del PGOU pretende identificar los retos actuales del municipio; nueva realidad física, económica y social, así como los límites del territorio y del planteamiento posible para un desarrollo sostenible basado en los propios recursos del municipio.

Se deberá también adaptar el modelo de desarrollo urbano a la transformación de la población, tanto en tamaño como en las formas de vida, y, por supuesto, a la Ley del Suelo y Urbanismo 2/2006 que regula su contenido y procedimiento y a los diferentes planes supra-municipales que le afectan directamente.

EK\CV GAO-I-2020-02345

Hortik guztitik ondorioztatzen da Hiri Antolamenduko Plan Orokor bat idazteak dakarren beharrezko hausnarketak arrazoi nahikoa izan behar duela eragileek prozesu horretan, erredaktore eta estamentu publikoek, erantzukizunez har dezaten beren gain herritarren tokiko ezagutza txertatzeko beharra, eta esku hartzen den lurraldean bizi diren pertsonen aldetik adostasuna bilatzea eta proposamenak onartzea, plangintza benetan egokitzeko. Hau da, herritarren parte-hartze erreal eta eraginkor baten premia nabaria.

Hau da, herritarren parte-hartze erreal eta eraginkor baten premia nabaria.

*2. Herritarren partehartzea.*

Herritarren parte-hartzea ez da informazioa ematen soilik saiatzen. Herritarrei inkestak egitea ere ez da, ezta lan tailer batzuk egitea ere. Ez da interes-taldeekin lan egitea, ezta erabakiak hartzerakoan herritarren iritzia kontuan hartzea ere.

Herritarren parte-hartzea horren guztiaren laburpen bat da; herritar guztien eta eragile politikoen arteko baterako erabaki-prozesuak dira, gizartea osatzen dugun guztiok parte har dezagun gure bizikidetza-eredu herritarraren erabakiak hartzen, horrela gure lurraldearen garapen-eredu berrien prestaketan parte har dezaten.

Beraz, parte-hartzea prozesu jarraituak dira, eta herritarren artean partaidetzaren eta talde-eraikuntzaren kultura berri bat ezartzen saiatzen dira. Gizarte heldu bat gai da bere erabakiak aukera desberdinen arteko interes orokorrari begira eztabaidatzeko, guztion artean ahalik eta adostasun handiena lortuz.

— ¿Zergatik herritarren parte hartzea plan orokor baten garapenean?:

Plan Orokorra oso dokumentu konplexua da, herritar gehienentzat ulertzeko zaila. Pertsona gehienentzat, dokumentuak, beren lengoaia teknikoarekin eta dokumentazio grafikoarekin, oso informazio abstraktua da.

Baina, Plan Orokor batean, pertsonen eguneroko bizitzan eragin zuzena duten erabaki asko hartzen dira: hazkundearen hirigintza-eredua eta horren zenbatekoa, etxebizitza-eredua, ekipamendu-proposamena eta non kokatuko diren, espazio publikoen antolaketa eta kuantifikazioa, mugikortasun-sareak edo lurralde naturalaren babesa edo Kudeaketa, adibide batzuk jartzearren. Horrek guztiak lotura zuzena du gure bizimoduarekin.

Horrela, beharrezkoa da dokumentu urbanistikoen lengoaia teknikoa herritarrentzat ulergarria den lengoaia batera eramatea, hirigintza-prozesuetan hartzen diren erabaki garrantzitsuez jabetzeko, eta, alderantziz, herritarren nahiak eta beharrak hizkera teknikora eramateko, eguneroko bizimodutik bertatik.

*3. Herritarren parte hartze Planaren helburuak.*

Herritarren Partehartze Programa Aretxabaletako Hiri Antolaketako Arauak berrikusteko prozesuan parte hartzeko estrategiak zehazten dituen dokumentua da, hau da, udalerrirako HAPO berri bat.

Parte-hartze prozesua aurrera eramateko proposamena hiru ikuspegi desberdin kontuan hartuta planteatzen da:

— Ordezkagarritasuna: udalerriko gizarte-sare osoaren parte-hartzea eta ordezkagarritasuna bermatuko duten estrategiak gauzatuko dira.

— Irisgarritasuna: edozein pertsona, elkarte edo interesaturen irisgarritasunerako hainbat tresna emango dira.

De todo ello se desprende, que la necesaria reflexión que supone la redacción de un Plan General de Ordenación Urbana debe ser razón suficiente para que los actores presenten en este proceso, redactores y estamentos públicos, asuman con responsabilidad la necesidad de incorporar el conocimiento local de la ciudadanía, y la búsqueda de consenso y aceptación de las propuestas por parte de las personas que habitan el territorio en el que se interviene, para una real adecuación del planeamiento a la vida de las personas.

Es decir, la necesidad evidente de una participación ciudadana real y efectiva.

*2. Participación ciudadana.*

La participación ciudadana no trata solamente de proporcionar información. Tampoco es hacer encuestas a la ciudadanía ni hacer algunos talleres de trabajo. No es trabajar con los grupos de interés ni que se tenga en cuenta la opinión de la ciudadanía en la toma de decisiones.

La participación ciudadana es un compendio de todo esto, son procesos de co-decisión conjuntos entre toda la ciudadanía y los agentes políticos para que todos las personas que formamos parte de la sociedad seamos participes en la toma de decisiones de nuestro modelo ciudadano de convivencia, para ser así participes en la elaboración de nuevos modelos de desarrollo de nuestro territorio.

Así pues, la participación son procesos continuos que tratan de establecer en la ciudadanía una nueva cultura de la participación y del construir en colectivo. Una sociedad adulta es capaz de debatir sus decisiones mirando por el interés general entre las diferentes opciones, logrando el mayor consenso posible entre todos y todas.

— ¿Por qué participación ciudadana en el desarrollo de un plan general?:

Un Plan General es un documento muy complejo y de difícil compresión para la mayoría de la ciudadanía. Para la mayoría de las personas, los diferentes documentos, con su lenguaje técnico y la documentación gráfica es una información muy abstracta.

Pero, en un Plan General, se toman muchas decisiones que inciden directamente en la vida cotidiana de las personas: el modelo urbanístico de crecimiento y la cuantía del mismo, el modelo de vivienda, la propuesta equipamental y donde irán estos situados, la disposición y cuantificación de los espacios públicos, las redes de movilidad o la protección o gestión del territorio natural por poner algunos ejemplos. Todo esto tiene una relación directa con nuestro modo de vida.

